



**Euskal Eskola Publikoa,
gaur, bihar**

EUSKAL HEZKUNTZA
SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA
/ KOHESIO ETA JUSTIZIA
SOZIALERAKO EUSKAL
ESKOLA PUBLIKOA
PROIEKTUAREN OINARRIAK



Zer gertatzen ari zaio euskal hezkuntza sistemari?

*Euskal Eskola Publikoa,
gaur, bihar ekimenaren
diagnostikoa euskal
hezkuntza sistemari buruz*

1. Gure hezkuntza sistemaren berezitasunak

• Sistema dual (publiko/pribatua) erradikalizatua

EAEn ikasleak proportzio antzekoan banatzen dira bi sareen artean¹. Europan arrakastatsuenak diren sistemak, publikoak² dira neurri handi batean. Beraz, **gure sistemaren izaera dual polarizatua "anomalía" bat da testuinguru europearrean.**

• Sare pribatu gainfinantzatua

Euskal hezkuntza sistemako ikastetxe pribatuek jasotzen duten finantzaketa, beste erkidegotan jasotzen dutenaren oso goitik dago³, eta Europan ez dago antzekorik.

• Mugarik gabeko ikastetxea aukeratzeko askatasuna

Familia askok, ikastetxea hautatzerakoan, klase sozial konkretuko testuinguru eskolar ahalik eta homogenekoak bilatzen dituzte bere seme-alabentzat.

• Elebitasun bermatu gabea

Euskararen erabilera normalizatzeko legeak eta Euskal Eskola Publikoaren legeak euskararen erabilera eta ezagutzari buruz planteatzen zituzten helburuak bete gabe jarraitzen dute⁴. Euskararen egoera honek, **ikasleriaren aukeraketa eta baliabide ekonomiko urriko ikasleen konzentrazioa** ahalbidetzen du ikastetxe publiko batzuetan.

Hauek eta beste ezaugarri batzuk daude, gure sisteman ematen ari den ikasleen desparekotasun sozialen, eta ikastetxeen artean ematen diren heterogenetasun maila hain derberdinen zergatien artean.

2. Euskal hezkuntza sistemaren kalitatea

• Adierazleak

Kanpo ebaluaketek ematen dizkiguten datuetara jotzen badugu, ikus daiteke adierazle batzuk onak edo oso onak direla⁵, eta horiek lortzeko eskola publikoa eragile nagusietako bat izan da. Esaterako, eskolarizazio-tasa, goi-mailako ikasketak dituzten 30-34 urte bitarteko hiritarrak, eskola-absentismoaren tasa, DBHa amaitzen duten ikasleen portzentaia, egokitasun-tasa, etabar.

Baina gure sistemak baditu beste zenbait adierazle nola-halakoak edo txarrak⁶: sistemaren errendimendu eskasa eta emaitza ez onak, ikastetxeen barruko ekitate arazoak, lurralde eta ikastetxeen artean ematen diren desberdintasunak atzerriko ikasleen eskolarizazioan eta euskararen normalizazio prozesuan gertatzen ari den geldialdia, esaterako.

Ahulezi horietako gehienak aspaldidanik errotzen joan dira eta estrukturalak bihurtu dira.

Aditu askok adierazten duten moduan⁷, PISAren argazki erredukzionistegiak ez digu hezkuntza prozesuaren hainbat aspektu garrantzitsuen informaziorik ematen, sistemaren aurrerapenen informazioa ematen digu ostera. Hala ere, laguntzen digute gure hezkuntza-sistema ingurukoekin konparatzen. Hau dela eta, antzematen da, sistema "konfort" egoera batean sarturik dagoela, eta zenbait aspektuetan geldialdia larri batean.



• **Maila sozioekonomiko eta kulturalaren eragina**

Ebaluaketak frogatzen ari dira, errendimendua oso lotuta dagoela ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalarekin⁸. Sistemak ez du frogatzen determinismo hori apurtzeko gaitasun nahikorik.

Beharrezkoa da azpimarratzea, itunpeko ikastetxeetako ikasleen maila sozioekonomikoa handiagoa dela publikoetakoena baino. Baina ISEK (Indize Sozio Ekonomikoa) indizearen eragina kenduz gero, emaitzak berdintsuak dira, eta kasu batzuetan hobetagoa eskola publikoan. Bestalde, sisteman ematen ari diren segregazio-egoerek oztopatzen ari dira, ikasleen jatorrizko desparekotasun egoeren murrizketa.

Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar ekimenak adierazten du, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eraginkortzeak duten garrantzia, ekitatea eta kalitatea hobetzeko.

3. Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar (EEPGB) proiektua

• **Nola sortu da ekimena eta zein helburu ditu?**

Eskolak izaki biziak dira, eta beraien proiektatzen dira Hezkuntza Sailaren erabakiak, programak eta proiektuak, ikaskuntza prozesuei bide emateko. Era berean, ikastetxe bakoitzak, bere eskola-komunitatearen parte-hartzean oinarriturik, bere hezkuntza proiektua garatuko duten planak eta jarduerak erabakitzen ditu.

Urtetan eskola publikoek bizi izan dute Hezkuntza Sailaren lankidetzaren falta beraien planak eta arazoak ahalik eta azkarren garatu eta konpondu daitezela. Eskola Publikoaren titularraren jarrera urrun honek bultzatu ditu HEIZE eta EHIGE proiektu hau abian ezartzera.

Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar proiektua jaio da, Euskal Eskola Publikoaren behatoki funtzioak betetzeko, eskoletan dauden arazo estrukturalak identifikatzeko eta hezkuntza-praktika onak antzemateko. Era berean, proiektu hau elkarlanerako eta lankidetzarako irekita dago, eta nahiko ***genuke gure ekimen hau kolaboratzaileen ekarpenekin aberasten joatea.*** Honek emango dio proiektuari bigarren dimentsio bat, ***ideien eta azterlanen laborategi bat*** izatea hain zuzen.

Epe motzera, *Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar* lana **Euskal Eskola Publikoaren gaurko errealitatea gizaratean proiektatzera** egongo da bideratuta. Zentzu honetan, badira hainbat gogoeta egin nahi ditugunak eskola publikoaren gaurko izaerari buruz.

• **Nolakoa da gaurko Euskal Eskola Publikoa?**

Hogeita hamar urtetako ibilbidean, aldaketa sakonak joan dira ematen, gaur eskola publikoak duen izaera eraikitzen dutenak.

Gaurko eskola publikoa ez da bere jatorrian zen eskola “transferitua”, baizik eta **euskal gizaratearen arabera eraikitzen joan den Euskal Eskola Publikoa.**

Urtetan sektore interesatu batzuk saiatu dira sare bakoitza bereizteko etiketa batzuk erabiltzen:

- Ikastolak: euskararen sarea.
- Ikastetxe erlijiosoak: baloreen heziketa bermatzen duen sarea.
- Eskola publikoa: baliabide ekonomiko gutxiko ikaslegoa eskolarizatzen duen administrazioaren sarea.

Etiketatzeko hauek ez dute lagundu eskola publikoaren benetako errealitatea eta ekarpen soziala hiritar guztiengana proiektatzen. Baina, nahiz eta tamalez etiketa hauek funtzionatuko zuten zenbait familiak bere seme-alabentzako hautua egiterakoan, gaurko eskola publikoa joan da bere benetako izaera kontsolidatzen hainbat funtzio sozialen bitartez. Batzuk aipatzearren:

- Aitzindari izan eta da euskalduntze prozesuan. **Ikasle gehien euskaldundu duen sarea⁹** da.
- **Eragile nagusia da ikasleen desparekotasunak murrizteko ahaleginean¹⁰**, eta azken urte hauetan atzerriko ikasleen eskolarizazioaren erantzukizun handiena hartu duena.
- **Eredugarria parte-hartzearen kultura eta ikastetxeen funtzionamendu demokratikoa ezartzen¹¹**.

Sare pribatua izan da sareen arteko sistema lehiakor eta sasi-merkatukoa bultzatu duena. Honek desitxuratu egin du sare publikoaren irudia, gehiegizko aniztasuna duen sare subsidiarioaren itxura emanez.

Euskal hezkuntza sistema bereizten duen eredu merkantilista honek oztopatu egiten du sistemaren barne kohesioa, eta egun euskal hezkuntza sistemak dituen desoreka estrukturalen oinarritzko kausa da.

Denon aitortza merezi dute eskola publiko askok erakutsi duten gaitasuna eta profesionaltasuna bizi izan duten testuinguru zailari aurre egiteko. EEPGBetik gure eskerrak adierazi nahi dizkiegu irakasle eta familiei, erakutsi duten konpromisoagatik hezkuntza sistemaren inklusioan sakontzen.

• Zer eskatzen du gaur egun Euskal Eskola Publikoak?

Eskola publikoak **bultzada instituzional eta soziala behar du, bere funtzio sozial egituratzailea indartzeko eta sistemaren sare nagusia izatera heltzeko.**

Asmo honekin dabil lanean EEPGB lantaldea, eta gure ikuspegiarekin bat egiten duten agintari, erakunde eta hiritarrak gurekin bat egitera deitzen ditugu.

4. Hezkuntzaren finantzaketa sistemaren erreforma

• Zein legek arautzen du hezkuntza-itunen sistema?

Itunen politika arautu zuen 1985eko Errege Dekretuak¹², zeinek Administrazioa eta ikastetxeen arteko kontratu bat zehazten zuen. Kontratu hau indarrean dago oraindik eta baldintza hauek ezartzen ditu ituna eskuratu ahal izateko:

- Planifikazio beharrei erantzutea.
- Ikasle behartsuenak eskolarizatzea.
- Hezkuntza proiektu singular bat garatzea.

Gaurko ikastetxe pribatuen ezaugarriak aztertzen baditugu, esan daiteke askok ez dituztela baldintza hauek betetzen¹³. Honek adierazten du, nahitasun politiko bat egon dala egoera hau mantentzen eta sendotzen joan zedin. **Gure sisteman ikastetxe pribatuak finantzatu dira neurririk gabe.** Gainera, finantzaketa ez da mugatu derrigorrezko etapetara Estatuko legeek arautzen duten bezala¹⁴, baizik eta batxilergoa eta lanbide heziketa ere maila garrantzitsu batean finantzaturik daude.

EEPGBen ustez, **ez da onargarria Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzea ikastetxe pribatuen finantzaketaren zati handiena, nahiz eta jakin askok legearen baldintzak ez dituzten betetzen, eta kohesio eta justizia sozialari inolako ekarpenik ez dietela egiten.**

• Kuoten sistema

Sozialki onartuta eta politikoki baimenduta dago ikastetxe pribatuek “kuota sistema” aplikatzea, nahiz eta denok dakigun kuota hauek legezkoak ez direla¹⁵, eta ikasle guztiek ikastetxea aukeratzeko eta aukera berdintasuna eragozten duela.

Horrela, “ikastetxe pribatu geto-elistak” sortzen lagundu du sistemak. Egoera honen aurrean EEGGBek bere desadostasna adierazi nahi du.

• Ikastetxea aukeratzeko mugarik gabeko askatasuna

Adituek eta ELGE erakundeak¹⁶ berak adierazten dute familien eskubideak ikastetxea aukeratzeko “ikasleen bereizketari” bide ematen diola. Izan ere, ikastetxearen aukeraketan ondo informatuta egotea gai klabea da, eta maila sozioekonomiko hobea duten familiek bitarteko gehiago dituzte horretarako.

Informazio mailan ematen den desberdintasun honi kuota sistemak duen eragina gehitzen bazaio, argi geratzen da **familia guztiek ez dutela askatasun maila berdina ikastetxea aukeratzeko garaian.**

Nahiz eta egoera hau jakina izan, gure hezkuntza-ardurdunek ez dute neurririk hartu gorpil zoro hau geratzeko.

• Dohakotasun efektiboa

Gure sistemak duen beste erronka bat, dohakotasun efektiboa lortzearena da. Gai konplexua da baina oso beharrezkoa gaurko finantzaketa sistemaren mugak gainditzeko. Gure ustez, norabide horretan urratsak ematen joateko, behingoz argitu beharko litzateke zein gastu diren oinarritzkoak eta zeintzuk ez, baina kontuan hartuta ikasle guztiek euren beharren arabera, aukera osoak izan behar dituztela berdintasunaren bidea garatzeko.

Egoera honi aurre egin eta hezkuntzaren dohakotasuna lortzeko, beharrezkoa da gure ustez egungo finantzaketa sistemaren mugak gainditzea.

Gure ustez argi geratu behar da zeintzuk diren oinarritzko gastuak eta zeintzuk ez. Prozesu hau printzipio honetan oinarritu behar da: ikasle guztiek, euren beharren arabera, bermatuak izan behar dituzte aukera berdintasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak.

• Justizia eta Kohesio Sozialerako Hezkuntza Zerbitzu Publikoa

Justizia eta Kohesio Sozialerako Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eraikitzearen aldekoa da EEGGB, baita berau eskainiko duten ikastetxeek bete behar dituzten

baldintzak arautzearen aldekoa ere. Era berean, argitu beharko litzateke zer nolako finantzazioa jasoko duten zerbitzu publiko hau eskaintzen duten ikastetxeek.

Argi dago gaur egun ikastetxe pribatu askok ekarpen eskasa egiten diotela kohesio sozialari eta maila sozioekonomiko guztietako ikasleen inklusio efektiboari. Ikastetxe eta ikastola horiek ez dute eskaintzen Justizia eta Kohesio Sozialerako Zerbitzu Publikorik.

EEPGBen ustez ezin da diru publikoz finantzatu ikastetxe pribatuen edozein hezkuntza proiektu.

5. Hezkuntza politika berrien beharra

• Statu quo-a aldatzeko asmorik ez

Azken bi hamarkadetan txandaketa politikoa egon da Hezkuntza Sailean. Egon diren sailburu desberdinak programa eta ezaugarri propioak aportatzen saiatu dira. Hizkuntza-ereduen markoa gainditzeko proiektuak, elkarbizitza indartzeko proposamenak, kanpoko ebaluzioen sistema eta bikaintasuna hobetzeko plana dira hauen adibide.

Alternantzia ona izanik, eskola publikoarentzat batzuetan ez da egokia izan, hainbat programen jarraitutasuna egotzi duelako.

Dena dala, ez da erreforma sakonik egin, eta sistemaren statu quo-a matentzenko politikak ezarri dira. Dinamika honek eraman gaitu egun dugun egoerara, aspektu positibo eta arazo estrukturalekin.

• Hezkuntza-eragileen jarrera arduratsua

EEPGBen ustez, egin diren politikak ez dira izan eraginkorrak sistema eguneratzen eta egokitzen joateko, gizartean ematen ari ziren aldaketen erritmo berdinean. Gaitasun eskas honek, areagotu egin ditu hezkuntza sistemaren ahuleziak, arazo estruktural bihurtu arte.

Urte guzti hauetan, ugariak izan dira azterlanak, irismenak, ikerketak, ..., Eskola Kontseiluak, unibertsitateek, sindikatuek, ... eginak, eta baita ere familien eta zuzendaritza taldeen aldetik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari helarazi zaizkion balorazioak eta proposamenak¹⁷. Ikastetxe publikoetako ordezkariak euren praktika onak aurkeztu dituzte ere hainbat jardunaldi, foro eta lan-taldeetan. Hauek ondorio interesanteak sortu dituzte hezkuntza-politikaren norabidea orientatzeko.

Ondare dokumental hau oinarritzkoa izan da jakiteko zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, baita hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragileak egindako hobekuntza-proposamenak kanalizatzeko ere.

Gure ustez arduradun politikoek ez dute aprobetxatu hainbat pertsonen egindako esfortzu handi hau, zeintzuek lagunduko luketen hezkuntzaren denborak gizarteko aldaketekin sinkronizatzen. Sistemaren inertzia eta immobilismoa sortu du egoera honek.

• Aurrera egitea oztopatzen duten arazo estrukturalak

EEPGBek gogoratu nahi ditu hezkuntza sistemak gaur dituen ahulezi eta arazo sistemiko batzuk eta eskola publikoaren hobekuntzan eragiten ari direnak:

- ✓ *Ikasleriaren bereizketa egoerak.*
- ✓ *Kuoten sistema eta ikastetxea aukeratzeko askatasun maila desberdinak.*
- ✓ *Hizkuntz ereduen sistemak duen eragina euskararen normalizazioan eta baliabide ekonomiko gutxiko ikasleen getizazio prozesuan.*
- ✓ *Eskola Publikoaren eskaintza eta zabaltze prozesua ahalbidetzeko, eskola-mapak behar duen eguneraketa.*
- ✓ *Ikastetxe publikoen autonomiarako araudi-marko baten falta.*
- ✓ *Irakasleen gaitasun dozentek hobetzeko eta rol berrietan trebatzeko formazio sistema eraginkor bat.*
- ✓ *Plantilen desegonkortasuna eta ordezkapenen sistemak dituen ahuleziak.*
- ✓ *Zuzendaritza taldeen egonkortasuna bermatzeko eta aitortza profesionalerako eredu berri bat.*
- ✓ *Eskola publikorako hainbat urtetarako inbertsio plan bat azpiegiturak eta eskola-zerbitzuak hobetzeko.*
- ✓ *Hezkuntz Sailak eskola publikoarentzat definitu gabe jarraitzen duen proiektu estrategikoa.*

EEPGBek argi dauka, hezkuntza sistemak aldaketa sakonak behar dituela arazo estruktural hauek gainditzeko. Horretarako politika ausartak behar dira.

• Kalitatea hobetzeko eraginkortu behar diren aspektuak

EEPGBen ustez, hauek dira Euskal Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko eraginkortu behar diren hainbat prozesu:

✓ **Aniztasunaren tratamendurako baliabideak.** Gelako aniztasuna eta konplexutasunak gora egin duten neurrian, ezinbestekoa da jakitea aniztasun horri aurre egiteko orain arte erabili ditugun baliabideak eta estrategiak zein neurrian jarraitzen duten balizkoak izaten.

Ebidentziak izateko, gelan aplikatzen ari garen programen eta estrategien efizientzia ebaluatu behar ditugu etengabe. Prozesu honetan, hezkuntza zerbitzuen aholkularitza lana oso garrantzitsua izango da, bereziki irakasleak gelako jardueren efikazia autoebaluatzeko bere ezagutza hobe dezaten.

Prozesuen ebaluazioaren bitartez jakingo dugu, agintariak gure eskura ezartzen dituzten baliabideak nahikoak diren gure geletako gaurko egoerari aurre egiteko, edo baliabide berriak behar ditugun.

✓ **Lehentasunak ondo markatu.** Hezkuntza Sailak argi markatu behar ditu sistemaren lehentasunak, ez baita errealista sistemak aboratu behar **dituen erronka guztiak denbora berean arraskastaz aurrera eramatea. Ezin dugu jarraitu ikastetxeak eta irakasleak deialdi andanarekin itotzen, programa eta hezkuntza-xede bakoitzaren garapen efektiboa bermatu nahi badugu.** Prozesu hauek razionalizatuz, irakasleen atxikimendua handiagotuko genuke.

Egun eskolen artean ematen diren aldeak ikusita, oso garrantzitsua da aholkularitza eta ikuskaritza zerbitzuetatik eskola bakoitzari laguntza ematea, bere ikasleriaren ezaugarrien arabera lehenestu beharko lituzteketen irakasleriaren formazioa eta berriztatze proiektuak ondo aukeratzeko eta burutzeko. **Aholkulari pedagogikoak eta ikuskariak** ikastetxe publikoen hobekuntzan eragiteko egun **du ten funtzioa indartzea** beharrezkoa da.

✓ **Baldintza egokiak berrikuntza proiektuetarako.** Ikastetxeen esperientziak erakusten digu proiektu piloto eta berrikuntzarakoek ez dituztela beti baliabide eta baldintza egokiak izaten.

EEPGBek proiektu hauen ebaluaketa sakona eskatzen du hobetu behar diren arloak ezagutzeko. Era berean, arazoizko epe batean **berrikuntza ikastetxe publiko guztietara zabaltzeko bermeak** eskatzen ditugu. Hezkuntza sailak ezartzen duen “kupo” sistemak eta proiektuen hedapena luzatzeak arrial kezkarriak sortzen ari da ikastetxeen artean. Proiektu hauek arrakasta izatea eta hobekuntzarako efikazak izatea nahi badugu, ezinbestekoak dira Hezkuntza sailaren lidergo eta erantzukizuna, baita irakasle eta zuzendaritza taldeekin etengabeko harreman bat sustatzea, akatsak garaiz zuzentzeko eta behar diren baliabide nahikoak bermatzen joateko.

Bestalde, estrategikoak diren programa eta proiektuetan, bi aspektuei ezarri behar zaie arreta berezia:

- a) Pilotaje fasea noiz amaitzen den, eta hura ebaluatu ondoren eskola guztietara zabaltzeko ezarpen fasea noiz hasi eta noiz amaituko den.
- b) Bai pilotaje zein ezarpen faserako egingo diren inbertsioak eta giza baliabideak zehaztu eta bermatu. Kupoen politikak kalte handia egin diote aipatutako prozesuei, mugatu duelako ezarpen prozesua, horrela ikastetxeen arteko aldeak handiagotuz.

✓ **Zuzendaritza taldeen lidergo pedagogikoa indartu.** Ikastetxeen berrikuntza eta etengabeko hobekuntzaren funtsezko alderdia da hau. Gure behatokitik maizegi ikusi ditugu zuzendaritza taldeak erretzen, proiektuetarako behar zituzten baliabide nahikoak ez zirelako edo Hezkuntza Sailak ez zielako bermatzen koordinatzaileen egonkortasuna. Ziurgabetasun egoera iraunkor honek ez du lagundu ikastetxeak berrikuntzara erakartzen.

Euskal Eskola Publikoaren berrikuntzak ez du izan behar ziurgabetasunez eta oztopoz beteriko prozesua.

✓ **Informazio eta komunikazio prozesuan hobetu.** Hezkuntza Sailak eskola publikoekin erabiltzen dituen komunikazio eta kudeaketa prozedurek, erreforma sakonak behar dituzte. Sarritan, prozesu hauek arinki eta presaka eginda daudela antzematen da, edo funtzionamendu egokia bermatu gabe aplikazio informatikoetan maiz gertatzen den bezala.

Arazo estruktural hau aspaldidanik jasaten ari dira ikastetxe publikoak, eta zuzendaritza taldeentzat buruhustea izateaz gain, zeregin pedagogikotarako denbora eder bat kentzen die.

✓ **Negoziaketarako jarduera arduratsua.** Eskola publikoaren aurrerapena baldintzatuta dago Hezkuntza sailak ipintzen dituen zailtasunengatik hainbat urtetarako hezkuntza-hitzarmenak lortzeko. Kezkarria dira familiak aurkitzen

ari diren zailtasunak garraioa eta jantokiak hobetzeko baita sindikatuenak euren aldarrikapenak negoziatzeko.

EEPGBen ustez **ezinbestekoa da ikastetxe publikoetan eman den inbertsioen atzerakada errekuiperatzea ikastetxe pribatuetan inbertitzen jarraitu aurretik.** Sindikatuek hainbat urte daramatzat salatzen eskola publikoan ematen ari diren murrizketa eta inbertsio falta. Zentzu honetan, arduratu egiten gaitu eskola publikoari egonkortasuna emango lioketen hitzarmen eta urte askotarako akordio faltak (2010etik ez da hitzarmenik sinatu).

Aniztasunak gora egin duen garaian, atzera egin dute inbertsioek.

EEPGBek salatu egin nahi du Hezkuntza sailaren jarrera itxiak, eragin negatiboa daukalako eskola publikoan. Bitartean, lan-arloari dagozkion eskaerez gain, hezkuntza-berrikuntzarako beharrezkoak diren baliabideak bermatu gabe jarraitzen dute.

✓ **Agenda Digitala Eskola Publikoarentzat.** Eskola Publikoa aspaldidanik ari da *Euskal Eskola Publikoaren Agenda Digitala* aldarrikatzen.

Hezkuntza da ziurrenik gai estrategiko honetan, ibilbide-orri argirik ez duen sektore bakarra. Egin diren ikerketek adierazten dute hezkuntza dela digitalizazio prozesuan atzean geratzen ari den sektore garrantzitsu bat. Ezarpen prozesuan eman diren urratsak hori adierazten dute:

- IKT ikastetxe ereduaren ezarpen prozesua oso erritmoa geldian joan da garatzen, eta ikastetxe askok oraindik ez dute gaintitu hasierako maila.
- Bestalde, Hezkuntza Sailak abian ezarri zuen Sare Hezkuntza Gelan proiektu pilotoak, garapen maila desberdina izan du proiektuan sartu diren ikastetxetan, eta “kupoaren sistemak” eta dirulaguntzen politika aldakorak, asko mugatu dute ikastetxe publiko guztien digitalizazio prozesua.
- Euskarazko ikasmaterial digitalen proiektuak garatu gabe jarraitzen du, eta gailu digitalen politika ondo finkatu gabe dago oraindik. EEGGBen ustetan egoera kezagarria da, digitalizazioa oso erritmo eskasean doalako, eta eskola publikoen artean **arrakala digitala** handitzeko arriskuak ikusten direlako.
- IKT dinamizatzailearen dedikazioa zalantzan jartzen du etengabe Hezkuntza sailak, bere eregina klabea den arren aholkularitza pedagogikoa eta irakasleak dinamizatzeko.

EEPGBrentzat egoera kezagarria da, denborak eta inbertsioak zehaztuko dituen agenda digital baten faltagatik eta sare publikoan ematen ari den arriskuengatik arrail digitala eta baztertzea gertatzeko.

• **Sistemaren inertziak eta geldiunea gaintitzeko konpromiso partekatua.** Sistema aurrera joan da inertziak bultzatuta, eta honek gaur bizi dugun arazo estrukturalen egoerara ekarri gaitu. Gainera, egin diren hezkuntza-politikek oztopatu dute eskola publikoaren hazkundea, eta ikastetxe publiko guztien kalitatea maila berean hobetzea.

EEPGBek argi dauka, diskurtso autokonplazienteak edo amore emateko jarrerak ez diotela ezer lagunduko eskola publikoari. **Denbora heldu da**

sistemaren eta eskola publikoaren geroa beste bidetik eraikitzeko, lehenagoko inobilismoa eta inertzia gaitzeko.

Inbertsio eta ahalegin handiak egin dira eskola publikoan, eta hauek gabe ez zen posible izango gaur Euskal Eskola Publikoak duen kalitate maila lortzea. Baina hobekuntzarako tarte handi bat dagoela ikusten dugu.

EEPGBen ustez, jakin behar dugu zein aldagai eta erreforma diren beharrezkoak hobekuntza ahalbidetuko dutenak. Gure ustez, **aldaketak bi eremuetan egin behar dira: hezkuntza sistema mailan eta ikastetxe mailan.**

Sisteman egin beharko liratekeenak aurretik aipatuak izan dira, eta horiek egungo *statu-quo*-a gaitzeko duten hezkuntza-politika berrien eskutik bideratu behar dira.

Era berean, Euskal Eskola Publikoak, bere arreta eta ahalegin guztia ezarri behar ditu ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eraginkortzeko eta efizientagoak bihurtzeko ahaleginean.

Gure sistemak lortzen dituen nola-halako emaitzen aurrean, jarraitu dezakegu irakaslea seinalatzen errudun bakar bezala, eta hobekuntzaren ardura guztia beraiengan proiektatzen. Aldiz, EEGBen ustetan bestelakoa izan beharko luke bideak. Baina ez dugu uste ardura guztia irakasleengan ipini behar denik. Bestelako estrategiak behar ditugu.

Gure proposamena da hobekuntza **eragile nagusien lankidetzan** estutzea, eta sare indartsua osatzea eskola publikoaren kalitaterako: irakasleak, familiak, aholkulariak, ikuskariak, eta hezkuntza-arduradunak. Denok gaude deituak, erronkak, arrakastak eta porrotak asumitzera, denok daukagu erantzukizuna, ez bakarrik irakasleak. Batzuetan dirudi gelatik urruntzen geran neurrian, utzikeria egiten dugula gure erantzukizunaz. Eskola publikoaren hobekuntzan denok gara bidelagunak, proiektuak eta ezagutza partekatzeko eta ekintzak koordinatzeko.

Sistemak behar dituen aldaketa estruktural sakonak egiteko, hezkuntza politika ulertzeko forma berriak behar dira, eta aldaketa hauek gauzatzeko politikari ausartak behar ditu eskola publikoak. **Ez dira nahikoak sarean arteko arbitro izatera jotzen duten arduradunak, eskola publikoa indartzeko bidelagun konplizeak behar ditugu baizik.**

Aipatutako alderdi guztiak konpontzeko, zeintzuek eskola publikoari eragiten dioten, ez dugu behar hezkuntza-lege berri bat, baizik eta negoziaketarako borondate politikoa eta jarrera irekia. Horregatik, lidergoa eta konpromisoa eskatzen diegu ordezkari politikoei, Euskal Eskola Publikoari bultzada bat emateko, eta denon artean hiritarrei erakargarria egingo zaien hezkuntza-proiektu ilusionagarri bat eraikitzeko, gaurko euskal gizartearen kohesio eta justizia soziala hobetzeko oinarrizko baliabidea izango dena.

6. Akordiorako eta Euskal Hezkuntza Legerako kontsulta prozesua

Hezkuntza Sailak planteatu eta kudeatu duen prozesuak, hainbat muga eta nahitasun izan ditu, eskola publikoari mesfidantza sortu dizkietenak.

• EEPGBen balorazioa

Hauek dira, EEPGBek prozesuari buruz egin dituen balorazio nagusiak:

- ✓ Prozesuaren helburuetan eta dokumentuetan ez dira esplizitatzen Euskal Eskola Publikoaren interesak bideratzeko eta gaurko arazo estrukturalak gainditzeko proposamen zehatzak.
- ✓ Prozesu parte-hartzaile mugatua izan da. Eskola-komunitateari eta herritarrei ez zaie eman parte-hartzeko aukerarik.
- ✓ Goitik guztiz bideratutako prozesua izan da. Prozesurako parte-hartzaileen zein gaien aukeraketan Gobernuaren interesak agindu dute.

- Hezkuntza Sailak aukeratu dituen bost gaien inguruko ikuspegiak egiaztatzeke ez da beharrezkoa lege egitasmorik planteatzea.
- Aldiz, kontsultatik kanpo nahita utzi dira, beste gai garrantzitsu batzuk eztabaida sortuko luketenak:
 - Egungo sistema dualaren azterketa.
 - Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren printzipioak eta partaide izateko irizpideak.
 - Eskolen desberdintasunak murrizteko eta ikasleen bereizketa gainditzeko neurriak eta politikak.
 - Finantzaketaren eta itunen politika.
 - Eskola Maparen erreforma.
 - Hezkuntza sistemaren deszentralizazioa, udalen eskumenak.
 - Matrikulazio-tasaren jaitsierari aurre egiteko neurriak.
 - Etabar.

• EEPGBen kontsultarako proposamena

EEPGBren iritziz, **herritarrei ezin zaie ukatu etorkizunerako nahi duten hezkuntzari buruzko iritzia emateko aukera.**

Administrazio-Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikulua betetzeko, kontsulta publikoa egin behar zuen Eusko Jaurlaritzak.

Betebehar legal horretarako, Hezkuntza Sailak ireki duen kontsulta-prozesua¹⁸, izapide administratibo arin-arina besterik ez da izan, benetako parte-hartzea sustatzeko xederik gabea. EEPGBren iritziz, herritarrei ezin zaie ukatu etorkizunerako nahi duten hezkuntzari buruzko iritzia emateko aukera.

Gure proposamena da, **benetako prozesu parte-hartzaile irekia eta gardena abian ezartzea, eskola-komunitateetatik hasita eta herritarren interesak ezagutzera bideratua.** Euskal hezkuntza sistema egonkor baterako araudi-markoa definitzeko, guztioi eskaini behar zaigu ekarpenak eta gure interesak azaltzeko aukera.

• **Estatuko hezkuntza-politikaren egoera eta legediaren mugak**

Euskal Hezkuntza Sistemaren ibilbide historikoari begiratuz gero, ikus daiteke **Estatuak etengabe aldatu dituen lege organikoak eta araudiak, zeintzuek eragin negatiboa izan duten gure hezkuntzaren iraunkortasunerako**. Aldaketa normatibo hauek oso eragin negatiboa izan dute ikastetxe publikoetako egitura kurrikularrar eta proiektuetan.

Elkarteok, makina bat bilera eta elkarrizketak izan ditugu ikastetxe, alderdi eta Hezkuntza Sailarekin, araudi berriek sortzen zituzten aldaketak berriro ere ulertu eta egokitzeko. LOMCE legeak, zer esanik ez, oztopo sakon eta larriak sortu ditu euskal hezkuntzaren egituran.

Estatuaren politikaren egoera ziurgabetasunez beterik dago, eta azken urteetan behin baino gehiagotan aipatu da beste erreforma berri baten beharra. **Eskola publikoak uste du ez dela garairik egokiena gure hezkuntza lege bati espazio normatiborik egokiena aurkitzeko**. Are gutxiago, eskumenen zentralizazio diskurtsoak indarra hartzen ari diren garaian.

EEPGBen ustez, Euskal Herriko Hezkuntza Lege Propio bat egiteak euskal herritarren nahiak eta helburuak hartu behar ditu erreferentzia bezala, eta ez Estatuko statu quo normatiboak uzten dizkigun tarte edo "enkaje" apurrak.

Euskal Hezkuntzaren Lege Propio bat definitzeko egitasmoak ez du mugatua egon behar Estatuko legeen murrizketek uzten diguten espazioak betetzera.

- 1
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/diagnostico_sist_educati_vasco/eu_def/adjuntos/euskal_hezkuntza_sistemaren_diagnostikoa.pdf (12.orr)
- 2
<http://ntic.educacion.es/cee/informe2018/i18cee-informe.pdf> (84.orr)
- 3
<http://www.educacionyfp.gob.es/educacion/mc/redie-eurydice/sistemas-educativos/financiacion/rec-gasto-publico-conciertos.html>
- 4
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/diagnostico_sist_educati_vasco/eu_def/adjuntos/euskal_hezkuntza_sistemaren_diagnostikoa.pdf (70.orr)
- 5
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/diagnostico_sist_educati_vasco/eu_def/adjuntos/euskal_hezkuntza_sistemaren_diagnostikoa.pdf (23.orr)
- 6
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=6fed30d6-36c0-4b34-9dbf-6a07f8ab8bec&groupId=635622
- 7
<https://eldiariodelaeducacion.com/blog/2018/05/10/en-la-evaluacion-la-lomce-ha-sido-un-obstaculo-en-el-camino-que-se-habia-emprendido/>
- 8
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=6fed30d6-36c0-4b34-9dbf-6a07f8ab8bec&groupId=635622
- 9
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=6fed30d6-36c0-4b34-9dbf-6a07f8ab8bec&groupId=635622 (20.orr)
- 10
http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=6fed30d6-36c0-4b34-9dbf-6a07f8ab8bec&groupId=635622 (21.orr)
- 11
<https://www.ehige.eus/eu/oog-etarako-hauteskundeak/>
- 12
<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1985-26788>
- 13
<https://www.euskadi.eus/informacion/centros-educativos-privados-concertados/web01-a2hikast/es/>
- 14
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/albiste/2019/606-milioi-ikastetxe-privatuen-hezkuntza-itunak-finantzatzeko-gobernu-bilera-2019-09-10/>
- 15
<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1985-26788>
- 16
https://www.oecd-ilibrary.org/education/balancing-school-choice-and-equity_2592c974-en?platform=hootsuite
- 17
<https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2018/10/Euskal-Eskola-Publikoa-Haratago-eu-2.pdf>
- 18
https://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/aldez-aurretiko-kontsulta-publikoa-euskal-erkidegoko-memoria-historikoaren-eta-demokratikoaren-arloko-lege-aurreproiektuaren-gainean/web01-tramite/eu/

Kohesio
eta Justizia
Sozialerako
Euskal
Eskola
Publikoa
Proiektuaren
oinarriak

1. Euskal Eskola Publikoaren printzipioak eta hezkuntza-xedeak

• Eskola Publikoaren kalitatea bermatzeko baldintzak

Euskal Eskola Publikoaren Legeak¹ gutxieneko baldintza hauek arautzen zituen kalitatezko eskola publikoa bermatzeko:

- ✓ Giza baliabideez eta materialez ongi hornitua.
- ✓ Sektore guztiek esku hartzeko eskumena.
- ✓ Egiatzko autonomia.
- ✓ Finantzaketa: doakoa.
- ✓ Hezkuntza-eredua ikasleen jatorrizko aldean zuzentzailea.
- ✓ Desparekotasun sozioekonomikoak murrizteko konpentsazio-funts bat eratuko zela aurre ikusten zen.
- ✓ Hezkuntza zerbitzuen zonifikatzea, barrutien arabera.
- ✓ Euskara: lankidetzaren sustatzea administrazio desberdinen artean.
- ✓ Irakasleak euskaratzeko urtetako plana.
- ✓ Autonomiaren helburua irakaskuntzaren kalitatea hobetzea da eta eremu hauetan konkretatzen da:

- Antolakuntza
- Irakaskuntza
- Ekonomia eta finantzen kudeaketa
- Langileen kudeaketa

Ikastetxeak autonomiarik handiena izateko helburua planteatzen zen, eta autonomia horren erabilera egokia bermatzeko, Administrazioak koordinaketa eta kontrolaren funtzioa beteko zituen.

- ✓ Zuzendaritza-taldea gobernu-organoa bezala arautu zen, zuzendaritza zereginari ikuspegi kolektiboa emateko.

Euskal Eskola Publikoaren Legearen aspektu desberdin horiek, tamalez ez dute garapen maila berdina izan.

Gaur egun Eskola Publikoaren Legearen printzipio nagusiak indar guztia dute, eta beharrezkoak dira baita zehazten dituen konpromisoak. EEPGBk ez du aurkitzen legearen oinarriak amortizatzeko arrazoirik.

• Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar lantaldearen hainbat gogoeta

Eskola publikoa, Legean aurre ikusten zena bideratuz, joan da hainbat aspektu garrantzitsu indartzen eta horrela hezkuntza sistema hobetzen. Batzuk aipatzearen:

- ✓ Parte-hartzea eta kultura demokratikoa indartu.
- ✓ Herri eta auzoen garapen kulturala eta soziala ahalbidetu.
- ✓ Euskararen normalizazioan eragin.
- ✓ Aniztasunaren trataeran, ikaskuntza-irakaskuntza estrategiak berriztu.
- ✓ Eskolako absentismoa murriztu.

Eskola publikoak sistemari egindako ekarpen garrantzitsu horiengatik, EEParen irudiak hobera egin du herritarren artean.

Bestalde, badira hainbat aspektu garapen maila ez osoa edo inolakoa izan dutenak:

- ✓ **Autonomia:** aspektu gehienetan eskolek oso autonomia mugatua daukate, langileriaren arloan batez ere.
- ✓ **Zuzendaritza-talde status-a:** inoiz ez da abordatu serioki zuzendaritzen garapen profesionalerako marko eraginkor bat.
- ✓ **Parte-hartze deszentralizatua:** eskola-barruti, bilgune edo lurraldeen bidezko parte-hartzeak zituen potentzialtasunak aztertze borondaterik ez da egon, eta joera izan da erabakiak hartzeko eredu gero eta zentralizatuagoa izatea.

EEPGBen ustez, garatu gabe dauden aspektu hauek, garrantzitsuak jarraitzen dute izaten eskola publikoaren kalitatea hobetzeko. Horregatik, beste lege edota araudi berrien aurretik, aspektu hauen garapenari ekin behar zaiola uste dugu.

• **Hezkuntza sistemaren zorra Euskal Eskola Publikoarekin**

Euskal Eskola Publikoaren Legetik garapenik izan ez duten aspektuek, eta gizartean ematen ari ziren aldaketetara egokitzeko Legean egin ez diren eguneraketek, oztopo handia izan dira eskola publikoaren hobekuntzarako. Faktore horiek eta sisteman kontsolidatzen joan diren arazo estrukturalak, eskola publikoari kalte nabarmena egin diote bere zabalkundearen, eta ikaskuntza prozesuen kalitatean.

Urtetan gertatzen joan diren prozesu kaltegarri hauen zuzenketa premia da, eta Euskal Eskola Publikoari zor zaizkion konpromisoak dira.

2. Euskal hezkuntza sistemak behar duen norabide aldaketa

• **Sistemak abordatu behar dituen erreformak**

Adierazleek adierazten dizkiguten hobekuntza eskatzen duten aspektuak oso argi daude jasota sistemak orokorrean sortu dituen txosten eta ikerketetan. EEGPBek azpimarra ezarri nahi du eskola publikoaren geroari hurbiletik eragiten dioten horietako aspektu batzuetan:

- ✓ **Hizkuntza-ereduen sistema aldatzeko dagoen beharra.** Txostenek behin eta berriz azaldu dute sistema honek dituen mugak eta trinkotasunik eza. Egun, elebitasun efektiboa bermatu gabe jarraitzearen arrazio nagusietako bat da, eta ikasleen kontzentrazioen eragile.



- ✓ **Ikasleen bereizketa indartzen doa.** ikastetxe publiko-pribatuen eskolarizazio desorekatuak eta ikastetxe publikoen artean dauden aldeak, ikasleen bereizketa eta haustura soziala bultzatzen ari dira.
- ✓ **Desberdintasun sozioekonomiko eta kulturalen eragina.** Emaitzek adierazten dute gure ikaskuntza sistema ez dela oso eraginkorra desparekotasun horiek gainditzeko. Gainera, ikastetxe mailan ematen ari diren ekitate-arazoak adierazten digute arazo estruktural garrantzitsu baten aurrean aurkitzen garela.
- ✓ **Eraginkortasun falta.** Sistemak hezkuntzan egiten duen inbertsioengatik ez du ematen itxaron zitekeen errendimendua. Berezi **maila sozioekonomiko baxuko ikasleen emaitzak, eta maila sozioekonomiko eta kultural ertain/altuko ikasleen bikaintasun eskasa** dira aipagarriak.
- ✓ **Konpetentzia guztiak ebaluatzeko ebaluazio-sistema.** PISA eta kanpoko ebaluazioek ematen duten informazioa ez da nahikoa ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ahuleziak non dauden jakiteko. Adituek dioten bezala, konpetentzia disziplinarrak bezain garrantzitsuak dira disziplinarrak ez direnak landu eta ebaluatzea, hauek besteetan eragin zuzena dutelako. Horregatik, ezinbestekoa da **ikaskuntza prozesuetan ebaluzio-sistema integral bat** ezartzen joatea, prozesuaren argazki osoa izateko, eta hobekuntza planak non planteatu behar diren erabakitzeko.

Era berean, **ikaskuntza prozesuetan erabiltzen ditugun estrategiak eta metodologiaren eraginkortasuna neurtzea** garrantzia hartzen joan da, gelako konplexutasunak gora egin duen neurrian. **Ebidentzia zientifikoetan oinarritutako ikaskuntza eredu bat behar dugu** ikaskuntza prozesuak eraginkortzeko.

- ✓ **Sistema dual erradikalak sortzen dituen ondorioak.** Beste hezkuntza sistemen ondoan gureak duen anomalia hau, progresiboki zuzentzen joateko beharra dago, ikerketek dioten bezala ikasleen bereizketaren sortzaile delako.

• **Zertarako akordioa eta hezkuntza legea prozesua**

EEPGBek prozesu honi buruz egin duen gogoetan, akordioa eta Euskal Hezkuntza Legea bezalako egitasmo batek lehenestu beharko lituzkeen hainbat aspektu azpimarratu nahi ditu:

- ✓ Hezkuntza sistemak gaur sarean, ikastetxeen eta ikasleen artean ematen diren aldeak murrizteko, **benetako hezkuntza zerbitzu-publiko bat eraikitzeke helburua izan behar du araudi-marko berriak.**
- ✓ Hezkuntza, kohesio eta justizia soziala helburu duten beste politikekin lerokatu beharko litzateke.
- ✓ Ikasle guztien hezkuntza-inklusioreko eta desparekotasunak murrizteko hezkuntza sistema konpensatzailea eraikitzea izan behar du akordioaren oinarria.

Helburu horiek lortzeko, euskal hezkuntza sisteman erreforma sakonak egin behar dira, sistemaren egitura arautzen duten araudi-marko eta politiken norabidean.

Zentzu horretan, EEPGBek ulertzen du ezinbesteko dela, **sistemaren statu quo-a aldatzea, egungo eredu dual (publiko/pribatu) erradikalizatua gainditzeko.**

Aldaketa sakon hori gabe, euskal hezkuntza sistemak interes korporatiboei erantzuten, desberdintasun sozialak errepikatzen, eta gaurko funtzionamendu neoliberalera eta ia merkatu bat bezalakoa izaten jarraituko du.

•Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar ekimenaren lehentasunak

EEPGBen ustez, euskal hezkuntza sistemaren etorkizuneko egituraketa prozesuak oso lotuta egon behar du printzipio batekin:

Euskal Eskola Publikoa hezkuntza sistemaren ardatza da.

Euskal Eskola Publikoa da, euskal gizartearen egituraketarako hiritarrok dugun tresna nagusia da.

Eskola publikoa sistemaren ardatza izatea da berme bakarra, hezkuntza sistema bideratzeko ekitatera, aukera berdintasunera eta kalitatera.

Gaur egun sistemak dituen enborreko arazoak, eta eskola publikoaren hazkunderako ditugun eragozpenei irteera aurkitzeko bide bakarra, **Euskal Eskola Publikoaren kalitatea handitzeko politikak sustatzea** da. Horretarako, ez da lege berri bat behar.

Hezkuntza Sailak bideratu duen prozesuaren emaitza izan da “Hezkuntzaren aldeko akordioa” dokumentua². Azken hamarkadetan metatzen joan garen esperientziek erakutsi digute, garrantzitsuak direla erreformak zehazten dituzten hitzarmen testu-koherenteak eta adostasun zabala dutenak erdiestea, baina ahalegin hori ez dela nahikoa, gero ez badago erreforma horiek guztiz garatzeko borondate politikorik. Eta ez betetzei buruz, eskola publikoak baditu adibideak soberan.

Garaia heldu da, **hezkuntzan mugitzen ari diren interes korporatiboen aurrean, Euskal Eskola Publikoaren interesak eta proposamenak ere lekutzen eta plazaratzen joateko.**

Horregatik, *Euskal Eskola Publikoa gaur, bihar* ekimenetik erabaki estrategiko bat hartu dugu bere gogoeta prozesuaren lehentasunak zehazteko. Aurreratzean, hauek dira landu nahi ditugun **ardatz-lerro estrategikoak**:

1. Ikastetxe publiko guztien kalitatea eta ikas-irakaskuntza prozesuen efikaziaren hobekuntza.
2. Eskola-maparen erreforma, eskola publikoen sare inklusiboa indartzeko.
3. Desparekotasunen murrizketarako eta prebentzio neurriak eraginkortzeko inbertsioak hobetzea.
4. Eskola publikoen arteko gobernamentu irekia eta kolaboratzailea sustatzea.

5. Planifikazioa desentralizatzea, udalek hezkuntzarako dituzten eskumenak handituz.

Lan honetarako, gure asmoa da kolaboratzaileen eremua indartzea.

• **Euskal Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko finantzaketa**

Euskal Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko hainbat aspektuetan eragin behar da ikusi dugun bezala. Horietako bat noski inbertsioena da. Euskal hezkuntza publikoak azken urteotan pairatu behar izan dituen murrizketek eta gure herrialdean hezkuntzarako bideratzen den BPGd-ren ehunekoak erakusten dute, besteak beste, **hezkuntzaren finantzaketa-eredua berrikusteko beharra dagoela**.

Gero eta presio gehiago egiten dute itunpeko ikastetxeen patronalek bere finantziaketa hobetzeko. Euskal Eskola Publikoa defendatzen dugun herritarrok eskubidea eta betebeharra dugu politikariei kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzeko, merkatuak eskaintzen dituen aukera pribatuen gainfinantzaketaren ordean. Hezkuntzaren alorrean egiten ari dena ulergaitza litzateke osasun-arloan edo beste sektore batzuetan.

EEPGBk **BPGd-ren ehuneko bat gehiago gutxienez hezkuntzara bideratzearen alde** egiten du, hezkuntza-sistema arrakastatsuak dituzten Europako beste herrialdeetan bezala, non eskaintza publikoa nagusia den. Euskal Eskola Publikoaren Legeak dioen bezala, eskola publikoak finantziaketa nahikoa izan behar du, ondorioz, **inbertsio gehiago** eskatzen ditugu bere hezkuntza-kalitatea hobetzeko.

EEPGBk salatzen du **ikasleak sexu eta maila sozio-ekonomikoaren arabera aukeratu dituzten ikastetxe pribatuak finantziaketa jasotzen jarraitzen dutela**, interes partikularrak gizarteko ginetik ipiniz. Ikastetxe hauek ez lukete finantziaketa publikorik jaso beharko.

Gure **desadostasuna adierazten dugu, merkatuaren oso antzeko bikaintasun-eredu erretorikoak bultzatzen dituzten hezkuntza-proiektuek finantziaketa publikoa jasotzearekin**, gizarteko desberdintasunak betiketzen dituztelako eta ikasleak maila soziokulturalaren eta sexuaren arabera hautatzen dituztelako.

Guk defendatzen dugun hezkuntza-sistema defendatzen duten eragile sozial eta politikoekin, **ikastetxe bakoitzak inklusio eta gizarte-kohesioaren helburu sozialei aportatzen dienaren arabeko hitzarmen-eredua aztertu eta aurkitzeko prest gaude**.

Euskal Eskola Publikoak ez du babestuko gaurko egoera mantentzea helburu duten lege-esparrurik.

3. Euskal Eskola Publikoaren proiektuaren indar lerroak

• **Eskola publikoaren izaera**

Euskal Eskola Publikoa ez dugu «hezkuntza-zerbitzu» huts gisa ulertzen. Eskola Publikoaren funtzio sistemikoa zabalagoa da. **Euskal Eskola Publikoa, gizarte-kohesiorako eta justiziarako proiektu instituzionala eta herritarra da.** Horregatik, euskal hezkuntzaren oinarriak eta etorkizunean izan behar duen egitura definitzeko, **herritarren zuzeneko parte-hartzea** bermatzea oinarritzakoa da.

• **Eskola publikoen sare inklusiboa**

Euskal Eskola Publiko guztiek aipatu dugun izaera horrekin bat etortzeko, ikastetxeko hezkuntza proiektu inklusibo bat garatzeaz gain, **sare solidario inklusibo indartsu eta orekatu bat osatu behar dute**. Gure kolaboratzaileek esaten diguten bezala, sistemak hainbat ikastetxe utzi ditu abandonaturik bere zortera, geto estigmatizaileak gauzatu.

Horregatik, **sare publiko inklusibo bat defendatzen dugu**, eta une honetan eskola publikoen artean ematen diren aldeak gainditzea beharrezkoa ikusten dugu. Horretarako, **ikastetxe bakoitzaren interes partikularren gainetik, ikasleei eskolarizazio baldintzarik egokienak aurkitzeko printzipioak orientatu behar du eskola publikoen sarearen planifikazioa**. Tokian tokiko eskola publikoak ere, eragile garrantzitsua izan behar du, ikastetxe publikoetako ikasle guztiek aukera berdinak izan ditzaten.

Sare orekatu eta inklusiboa antolatzeko eta egituratzeko, Eskola Publikoen Mapa berrikusi behar da.

• **Euskal Eskola Publikoaren proiektuaren oinarriak**

EEPGB lantaldeak, proiektu sozial estrategiko baten indar-lerroak definitu ditu Euskal Eskola Publikoarentzat. Proiektu honen bitartez, eskola publikoa hezkuntza sistemaren ardatza bihurtuko duen palanka bihurtu nahi dugu. **Eskola publikoa sistemaren sare indartsuena eta hiritar gehienena izan dadin, klase sozial guztien interesetara egokitzen den kalitatezko proiektu soziala eraiki nahi dugu**. Proiektu honek, hezkuntza sistema ekitatiboagoa eta bikainagoa bihurtuko du, eta gizarte-kohesioa eta justizia soziala indartuko du.

Horregatik, guztiok (hiritarrok, ordezkari politikoak, familiak, irakasleak, eragileak, etabar) **erantzukizun partekatua daukagu** proiektua hau errealitatea bihurtzeko.

4. Euskal Eskola Publikoaren proiektuaren egitura

Eskola Publikoaren kalitatea hobetzeko, uste dugu hainbat eremuetan egon behar dela esku-hartzea.

Proiektuaren arkitektura hezitzailea osatzen duten oinarri nagusiak planteatzen dira ondoren.

4.1. Euskal Eskola Publikoa, gaurko euskal gizartearen eragile

- Eskolaren heziketa eta prestakuntza jarduera, ikaslearen ingurune hurbilarekin elkartu behar da. Eskolak, herriak, auzoak, barrutiak, komunitate bezala dituen erronkak ezagutzeko aukera eskaini behar dio ikasleari, eta partehartzearen kultura sustatuz, hiritar aktiboa izateko prestatu. Auzo eta inguru hurbilean sortzen diren dinamika komunitarioak ikasleak ikasteko testuinguru interesgarriak dira, eta horrela ikasleak elkarbizitzarako eta kohesio sozialerako eragile aktiboak bihurtzen joango dira.

- XXI. mendeko gizakiok ditugun erronken ezagutza, eta horien aurrean ikaslearengan jarrera kritiko bat izatea ahalbidetu behar du eskolak.

- Gure gizartean ematen ari den laikotasun sozialaren gorakadak adierazten du gero eta beharrezkoak direla eskola publikoa definitzen duten printzipioak gizarteratzea eta indartzea.

• **Euskara eta euskal kulturaren ezagutza bermatu behar du eskolak, eta ikaslea ondare kultural horren garapenerako eragile aktiboa bihurtu.** Era berean, atzerritik etorritako ikasleen ohiturak eta kultura ezagutzeko proiektu kulturantzak indartu behar ditu eskolak.

Bihurtu dezagun eskola publikoa herri eta auzoen bizitza sozial eta kulturean parte-hartzaile aktiboa. Auzo eta inguru hurbilean sortzen diren dinamika komunitarioak ikasleak ikasteko testuinguru interesgarriak dira, eta horrela ikasleak elkarbizitzarako eta kohesio sozialerako eragile aktiboak bihurtzen joango dira.

4.2. Pertsonaren garapen integrala bilatzen duen hezkuntza eredua

Gure hezkuntza sistemak garrantzi handiegia eman ohi dio arrakasta akademikoari eta azterketa estandarizatuari. Lan munduak ere atzean utzi duen eredu honek, bigarren maila batean uzten du pertsonaren dimentsio etikoa eta gizatiarra, eta ahaztu egiten ditu ikaskuntzaren beste helburu interesgarriak, sormena eta ekintzailetasuna garatzea adibidez.

EEPGBen ustez, hauek dira esku-hartzea eskatzen duten aspektu batzuk, gure heziketa prozesuek ikuspegi integralago batetik gara daitezten:

• **Ekintzailetasuna balio hezitzaile gisa.** Gaurko testuinguru sozial eta ekonomiko hain aldakorretan ikasleak ahalik eta ondoen txertatzeko, oso garrantzitsua da ikasleen sorkuntza eta autonomia gaitasunak garatzea. Zentzu honetan, eskola publikoak ekintzailetasunaren balioak sustatu nahi ditu, hauek izango baitira ikasleari bere bizi-proiektu duina definitzen lagunduko diotenak.

• **Adimen soziala eta emozionala.** Hezkuntza prozesuen lehen estadioa adimen garrantzitsu hauen garapena izan behar du, hauek ahalbidetzen dutelako beste gaitasunen garapena. Adituen ustez, erresilientzia eta taldean ikastea bezalako gaitasunen garapenak hobetzen dute ikaskuntza prozesua.

✓ **Curriculum.** Oso curriculum kargatuak dauzkagu. **Curriculum inpossibleak planteatzea ez da eredurik egokiena gaurko irakasle askok bizi duten gelako aniztasunari erantzun egokitu emateko.**

Ezagutza partzelatua disziplinetan eta edukiez betetako edukiontzi erraldoiak, ez dira erabilgarriak gaurko metodología berritzaileak garatzeko. Arazo errealean ezagutzak ez daude partzelatuak. Ikasleei ez dizkiegu gauzak irakatsi behar, ikasten ikasi behar dute baizik. **Ikasleen galderak egiteko, komunikatzeko, irudikatze, ikertzeko, errealitatea kuestionatzeko gaitasuna garatzea, edukin pilo bat metatzen joatea baino askoz garrantzitsuagoa da.**

Curriculum ofizialak oso orokorrak izan beharko lukete, ikastetxeek espazio gehiago izan dezaten. Curriculumari buruzko eztabaida ideologikoak gainditu behar ditugu, eta irakasleari itzuli behar zaio hezkuntza legeek progresiboki kendu dioten eskumena: **curriculum gelako erritmo eta beharretara egokitzeko autonomia.**

Herria, auzoa, inguru sozial hurbila eta orohar gizakion erronka nagusiak, ikaskuntza-prozesu emankorrek eta hezkuntza-jarduera motibagarriak definitzeko, informazio-iturri klabeak dira, hezkuntza eskolatik haratago

planteatzen joateko. **Irakasle curriculum-egileak eta arazo errealekin konektatuak behar ditu eskola publikoak.**

✓ **Irakasleen formazio integrala.** Ikasle guztiei ingurune afektibo eta emozional positiboa, eta ikasteko eskola-giro egokia bermatzeko, **emozioen garapena ikaskuntza prozesuetan txertatzeak** garrantzi handia du. Helburu hau ahalbidetuko duen eskola lortzeko, irakasleen formazioari arreta ezarri behar zaio, adimen emozionala garatzea duten ikaskuntza prozesuei.

4.3. Eskola publikoaren autogestiorako gobernantza berria

Euskal Eskola Publikoaren legeak aurre ikusten zuen bezala, ikastetxeek autonomia efektiboa izan behar dute hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. **Autonomiaren araudi-markoa** exijitzen dugu, baina **ikastetxeek autonomiaren erabilera zuzena egitea** ezinbestekoa da.

Euskal Eskola Publikoaren autonomia ereduak ezin du izan desregularizatzailea, eta ikastetxeen artean aldeak handitzeko. **Komunitateko sektore guztien parte-hartzean oinarrituko den autonomia eredu** nahi dugu.

Zuzendaritza-taldearen egonkortasuna eta aitortza profesionala bermatuko duten araudia sortu behar da. Ez da onargarria zuzendaritzen denbora gehiena lan burokratikoek jatea. Esperientzia luzea daukagu gai honetan. Ikasturte hasierako esleipen prozesuan gertatu dena adibide. Administrazioak dituen gestio, ebazpen eta adjudikazioetarako prozedurak astunak eta zaharkituak geratu dira. Erreforma sakon bat behar dute.

Eskola publikoak eskumen gehiago izan behar ditu hainbat zerbitzu eta produktu kontratatuzeko.

4.4. Ikerkuntza hezkuntza kalitatea hobetzeko bidelagun

Euskal Eskola Publikoak kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustua egiten du, eskolako giroan oinarrituta, eta arreta pertsonalizatua eta ebidentzietan oinarritzen diren ikaskuntza-irakaskuntzako metodologiak ezarriz.

✓ **Irakasleen formazio teorikoa.** Ikasgelako prozesuek eraginkortzeko irakasleak behar duen ezagutza eskuratzeraz egon behar du bideratuta. **Formazio prozesuak irakasleari eskaini behar dio estrategia eta metodologia berriztatzaile desberdinak ezagutzeko aukera, gero berak aukeratzeko zein den bere ikasleen beharretara ondoen egokitzen dena.** Formazio hau motibagarria izan behar da irakaslearentzat, eta eguneroko errealitateari erantzuteko baliagarria. Adibidez, gaur egun neurozientziaren arloan ematen ari diren aurrerapenak, aukera berriak eskaintzen dizkigute ikaskuntzaren prozesu psikopedagogikoak sakonago ulertzeko.

EEPGBek garrantzi handia ematen dio irakasleen formazio hau arrakastatsu izateko, formatzaileen gaitasunari eta formazioa irakasleen beste zereginekin bateragarria den egutegi eta ordutegiari.

✓ Formazioaren dimentsio praktikoa

Irakaslea mugitzen den testuinguru errealean txertatu behar da. Ikasgela da metodología eta estrategia berriak esperimatzeko eta arrakastuenak direnak identifikatzeko gunerik garrantzitsuenak. **Irakasle-ikerlariaren sena berpiztu** behar da, eta horretarako oso garrantzitsua litzateke irakasleak bere

ikaskuntza prozesuak **autoebaluatzeko** behar duen teknika eta ezagutza hobetzea. Ikasgelan emaitzen hobekuntza sortzen duten didaktikak eta estrategiak bereiztea oso garrantzitsua da ebidentzian oinarritutako ikaskuntza prozesuak zabaltzen joateko.

Euskal Eskola Publikoak ikerkuntzaren eta **ebidentzietan oinarritutako ikaskuntza bultzatzeko sare indartsu eta koordinatu bat** behar du. Honek eskatzen du **unibertsitatea ikastetxeen errealitatek hurbilago egotea**, eta ezagutza partekatzeke aukerak ugaritzea.

Esan dugun bezala, ikastetxeak eta gelak ikerketaren gune garrantzitsuak diren bezala, unibertsitateak testuinguru globalean arrakastatsuak izaten ari diren metodologiak gure irakasleei eta etorkizun hurbilean irakasle izango direnei jakin arazteko erantzukizun handia dute.

EEPGBek uste du garaia heldu dela **eskola publikoko elkarte eta unibertsitatearen artean lan-hitzarmen bat sinatzeko**, sinergiak eta elkarlana sustatzeko. Modu honetan, bai batzuk eta besteak dugun ezagutza partekatzeke aukerak hobetuko genituzke.

4.5. Berrikuntzaren ikuspegi inklusiboa

Berrikuntza proiektuek bi helburu nagusiei erantzun behar diete: ikaskuntza prozesuen hobekuntza eta ikasle guztien eskola-arrakasta. Modu horretan, hobeto erantzungo zaio bikaintasuna-ekitatea helburuari.

Eskola publikoek burutzen dituzten berrikuntza-proiektuek eragozpenak izaten dituzte bere zabalkundeetan, eta horregatik EEGPBek proposatzen du **ikastetxetako berrikuntza-proiektuen behatoki bat** sortzea. Ahalegin honetan, gaur egun teknologia digitalek eskaintzen dituzten aukerak asko lagundu dezakete.

Bestalde, ikerketek laguntzen digute berrikuntzak gaur egun duen esanahaia argitzen:

- ✓ **Ikaskuntza prozesuak gela fisikotik haratago planteatu** behar dira. Bota ditzagun gaurko gelen hormak, eta zabaldu dezagun hezkuntza testuinguru ez formal eta informaletara.
- ✓ Berrikuntza ez da bera helburu izan behar, hezkuntza-xedeak lortzeko bitarteko baizik. **Berrikuntza eta inklusioa loturik joan behar duten prozesuak dira.**
- ✓ Berrikuntza proiektu esperimentalen bildumatik haratago doan prozesua da. Berrikuntza egoera latentea bat da eta zeregin kolektiboa. Irakasleek gelako jardueretan etengabe plantetatzen dituzten esperientzia txikiak ere berrikuntza dira. Ezinbestekoa da urrats txiki horiek beste irakasleekin partekatzea.
- ✓ Berrikuntzak esperimentatzeko gogoia eskatzen du. Inertziak eta erosotasuna gainditzea eskatzen du. Irakasleak, esperimentaziorako aldeko jarrera izan behar du, eta ziurgabetasuna bidelagun hartu.
- ✓ Berrikuntza prozesuek, ikastetxeen markoa gainditzea eskatzen dute. Eskola Publiko guztien hobekuntza sustatzeko, esperientzien partekatzea faktore eraldatzailea da. Horretarako, **berrikuntza-sareak indartu** behar dira, eta hauen ezagutzaren hedapena ahalbidetu.

Sarean lan egingo duen eskola publikoa nahi dugu, ikastetxe bateko esperientzia arrakastatsuak beste guztiekin partekatuko dituen. Ezinbestekoa da gainditzea gaur egun ditugun eragozpenak esperientzia arrakastatsuak partekatzeko, partekatuz ikasi eta sare-lana indartzeko. Eskola publikoentzat potentzialtasun handiko eremua da, ikastetxe guztiek aurreratzeko, baina horretarako tutorizazio sistema eraginkor bat behar dugu.

4.6. Kalitatea hobetzeko hainbat aspektu interesgarri

Eskola publikoaren kalitatearen hobekuntza ere hezkuntzaren izaera konpensatzailea indartzearekin etorriko da. Ikasle guztien inklusioa eta eskola arrakasta dira bere printzipioak eta hezkuntza-xedeak, justizia eta kohesio soziala lortzeko bidean. Ahalegin horretan, hainbat aspektuei ezarri behar zaie arreta:

- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak asmo handiko hezkuntza helburu zabalak eta orekatuak zehaztu behar ditu, ikasle guztiek hezkuntza-ekintzen onuradua izan daitezen. **Aniztasuna balore positiboa da eskola publikoarentzat eta proiektuak koherenteak izan behar dute printzipio horrekin.**
- Aniztasun handiko testuinguruetan, ekitatea bermatzeak izan behar du hezkuntza-ekintzen abiapuntu eta bidelagun. Honetarako, ikastetxeek antolakuntza malguagoa izan dezaten, behar diren aspektuetan autonomia gehiago izatea bermatu behar zaie.
- Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektu propio bat izan behar du bere hezkuntza-ekintzak ondo bideratzeko, eta eskola komunitatearen parte-hartzea izango da proiektu horren definizioaren eta garapenaren bermea.
- Berrikuntza ez da ikastetxe gutxi batzuen eskubidea edo ondarea. Hezkuntza sistemak bermatu behar du aukera berdintasuna, ikastetxe guztiek berrikuntza sareetan parte har dezaten. Horretarako, egun ikastetxeek dituzte eragozpenak gainditzeko, baldintza egokiak bermatu behar zaizkie. Ahalegin honetan, **ezinbesteko da Administrazioa ikastetxeetatik hurbil egotea, eta harreman pertsonalizatua mantentzea eskola bakoitzarekin.**
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioari garrantzia eman: irakasleak gelan ezartzen dituen prozesuen eta estrategia didaktikoen eraginkortasuna neurtzeko, ezinbesteko da **ebaluazio eta autoebaluazio sistema sostenigarriak** ezartzea.
- Irakasleen garapen profesionala izan behar da berrikuntzaren pizgarrietako bat. Zentzu honetan, **mentoring lanak indartzea eta aitortzea** beharrezkoa ikusten dugu.

Memoria duten eskola publikoak behar ditugu. Irakasleek bere gelako jardueretan lortzen dituzten ebidentzia arrakastatsuak biltzen eta sistematizatzen ikasi behar dute ikastetxe publikoak. Gero ebidentzia hauek beste irakasleen formaziorako abiapuntu ezinhobeak izango dira. Horrela, berrikuntzaren bitartez ematen diren aurrerapenak, ikastetxearen ondarea osatuko dute, eta ez dira bakarrik proiektuetan zuzenean parte hartu duten irakasleen oroimenean geratuko.

4.7. Gobernamendu irekia eta partehartzailea

Hezkuntzako **gobernamendu-eredu berri bat** aldarrikatzen dugu, **egungo hezkuntza-administrazioaren eredia gaindituko duena**, ikastetxeen dinamika eta arazoetatik urrun baitago. Ildo horretan, **izaera parte-hartzaileko administrazio-egitura bat** proposatzen dugu **hezkuntza publikorako**.

Gure ikastetxeetan ematen ari diren egoerak eta geletako testuinguru anitzek, eskatzen dute irakasleek ere izatea parte-hartzaile zuzenak hezkuntza berriztatzeko programen diseinuan, curriculum-aren berrikuspenean eta ebaluazioan. Elkarreok paper interesgarri bat joka dezakegu prozesu horretan. **Hezkuntza Sailak gehiago kontatu behar du ikasleekin zuzenean dabilen profesionalaren iritziarekin.**

Ikaskuntza eta berrikuntza prozesuek sustatuko duten egiturak diseinatzeko eta garapenari jarraipena egiteko, eredu parte-hartzaileagoa aldarrikatzen du EEPGBek. Ahalegin honetan, elkarreok bitartekaritza funtzioa indartu beharko litzateke.

HEIZE ETA EHIGE ELKARTEON ADIERAZPENA

Denbora behar dugu eta aldi berean ezin dira gauza batzuk luzatzen utzi. Denbora diferentek behar ditugu, gaiak aztertzeko eta ideak adosteko. Baina inoiz ezin ditugu utzi erdibidean, egiten diren proiektu, eztabaida eta dokumentu garrantzitsuak. Fidagarritasuna denbora arrazoizko batean ere oinarritzen da. Testu, eta proposamen koherenteak jasota daudenean, ez badira konkretatzen, susmoak sortzen dira, eta bestearen nahitasuna zalantzan jartzen da.

Adostasunak erdiesteko behar den denborari dagokionez, ez gaude ados eskaini zaizkigun prozesu ezin arinagoekin. **Benetako beharra ez da egungo sistema gainegitura gisa baliozkotuko duen Lege bat presaka argitaratzea. Aitzitik, beharrezko denbora hartu behar da, parte-hartzearen eta eztabaidaren bidez herri honetan benetan nahi dugun hezkuntzaren inguruko adostasuna lortzeko.** Lehenets ditzagun eztabaida eta adostasuna errealitatea mozorrotzen duen eta egiturazko arazoei erantzunik ematen ez dien lege bat presaka onartu aurretik. Jatsi gaitezen gehiegi ideologizatu dugun hodeitik eta saia gaitezen gure desadostasunetatik, kohesio eta justizia sozialerako behar dugun hezkuntza sistema baten oinarriak adosten.

Zer motatako gizartea nahi dugu etorkizunerako? Proiektu honek euskal gizartearentzako izango duen garrantzia eta ekar ditzaken ondorioak handiak izanik, **ezinbestekoa iruditzen zaigu prozesu parte-hartzaile bat eraikitzea, hiritarren interesak eta posizioak ezagutzeko.** Arazo asko dugu, ez digute erraz utziko nahi dugun gizartea eraikitzen. Herri oso bat behar da haur bat hezitzeko, baina herri horrek gaitasuna izan behar du haur hori berak nahi duen bezala hezitzeko. Eta bitartean bide hori eraikitzen joan behar garenez, inposatzen dizkiguten legeei aurre egin behar diegu, gure hezkuntza sistema hobetu, kohesionatu, indartu.

Ziklo berri bat ireki dezagun. Eskola publiko komunitarioa eta berria bezalako proposamenak edo bestelako planteamenduak aztertzeko prest gaude, baina ez proiektu hegemonikoak inposatu nahi dituzten sektoreen asmoekin. Horretarako, alderdi politikoei eta hezkuntza eta gizarte-eragileei konpromiso sozialez jarduteko eskatzen diegu, guztion artean justizia sozialean oinarritutako Euskal Herria eraiki dezagun, proiektu sozial berri bat, azken finean.

1

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/contenidos/ley/bopv199300650/eu_def/index.shtml

2

https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/11435/Akordioaren_Oinarriak.pdf?1522147857



Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar

2019ko Azaroa

EHIGE Gurasoen Elkarte

HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa

ehige 

Euskal Herriko
Ikasleen Gurasoen
Konfederazioa

 **heize**

Euskal Eskola Publikoaren
Zuzendaritza Elkartearen Federazioa